«Askotan entzun dugu etxea babesa dela, baina kondena ere izan daiteke»

Pello Lizarralde Idazlea

:: FELIX IBARGUTXI

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) Donostian izan da bere nobela berria aurkezteko: 'Elur bustia'. Aspalditik bizi da Iruñean eta euskara-irakasletza du ogibide. Euskadi saria irabazitakoa da 2002ko 'Larrepetit'-i esker eta oraingo nobela seigarrena du. Protagonista Ramiro da, «erortzen ari den gizona», eta hegoalderantz doana, jaioterriko etxe aldera.

–Etxera bueltatze bat kontatzen duzu, beraz.

–Nik uste dut etxeko soseguaren mito horrek oraindik indar handia duela. Joan deneko zortzi-bederatzi urteko krisi hau dela eta, askotan entzun dugu etxea babesa dela, eta jubilatu berriek eusten diotela etxeari, eta haien erretiro-sariari esker eraman izan dutela besteek egokitu zaien egoera lazgarria. Baina esango nuke etxea, askotan, zama ere badela, eta kondena ere izan daitekeela. Garai batean supazterrari lotzen zitzaion etxearen irudia, eta kontu kontari aritzeari otordu ondoetan. Komunikazio idealizatu bat ere egon izan da. Mikel Azurmendiren liburu batean ere aipatzen zen garai bateko esaera: «Zuk zure etxearen izena adina balio duzu».

ELUR BUSTIA
PELLO LIZARRALDE
Generoa: Nobela.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 127.
Prezioa: 15 euro.

–Liburuko protagonistak etxera deitzen du eta sumatzen da esperantza izpi bat.

–Etxea uzten duenak eta etxea ahazten duenak, badirudi kondena bat duela betiko, ez diolako erantzun erantzun beharrekoari. Etxea eta herria, biak askotan lotu dira. Jaioterria ere, zein neurritan da babes eta zein neurritan kondena? Hori seguru asko ez da sekula ebatziko, sekula argituko. Liburuan, zeharka –edo liburuaren zimurretan, agian– badago beste kezka bat: nik etxetik gertu, Iruñeko Parte Zaharrean, egunero bi eskale ikusten ditut. Lurrean eseri eta zakurra ondoan dutela egoten dira han. Sakelako telefonoa ere ondoan izaten dute, eta niri normala iruditzen zait eskaleek sakelako telefonoa edukitzea. Harritu egiten naiz batzuek pentsatzen dutelako hori gaizki dagoela; «nolatan egin liteke eskean horrelako telefonoa edukita?» eta antzekoak entzuten dira, esate baterako, zenbait tokitako kartoi- edo okume-etxolatan dauden antena parabolikoei buruz. Edo Gasteizen: «Bai, jendeak diru-laguntzak jasotzen ditu eta begira gero zer egiten duen diru horrekin!» Liburua bukatu berria nuela, iritsi zitzaizkidan amerikar batzuek egindako ikerketa baten ondorioak. Liburuaren izenburuak 'Urritasuna' edo horrelako zerbait esan nahi du, eta azpititulua 'Eskasiaren zientzia berria' du. Testigantza asko jaso dituzte eta hau esaten dute: «Hain diru gutxi daukan horrek, zergatik egiten ditu horrelako gastu irrazionalak?» Ikertzaile horiek frogatu dute egoera ekonomiko lasai samarra baldin badaukagu badugula kalkuluak egiteko aukera, baina oso estu dabilenak ez du horrelako kalkuluetarako astirik; erreakzio primarioak ditu eta hurrengo eguna da bere arazoa. Alegia, nola egin aurre hurrengo eguneko mehatxu horri. Liburuko Ramiro egon liteke horien artean, beharbada.

–Beraz, zuk liburu honi ekin zenionean, zera irudikatu zenuen: gizon bat alderrai dabilena.

–Bai, gizon bat, ezohiko beroa dagoen arratsalde batean, pabiloi industrial batean. Hortik abiatu nintzen. Biltegiak eta lantegiak itxita daude eta han noraezean dabil Ramiro, eginkizunen bat emango ote dioten edo zeozer lortuko ote duen.

–Ibilgailuak azaltzen dira, asko, zure istorio honetan. Aurreko nobeletan ere bai, susmoa dut, eta haietako batean hilda agertzen zen kamioilari bat. Aita ere garraiolaria izan zenuen... Errepideak konstante bat dira zure obretan?

–Bai, aita kamioizalea nuen, eta nik ere milaka kilometro egin ditut autostopean. Ibilbide luzeak egin ditut auto-stopez urteetan, bazter horiek ondo ezagutu ditut eta ondo hartu naute. Ikusi ditut Ramiro bezala dabiltzanak ere... Han entzuten direnek, batzuetan, ametsetakoak ematen dute, zeren hitz egindakoa naiz eskaleekin. Egunero ikusten duzun eskale bati ezingo zara elkarrizketa egiten, berriz. Bai, errepideak konstante bat dira. Nire protagonistak ez ditut imajinatzen egongela batean supazterrean... Nik ez dakit hori egiten.

–Liburuko tokia ez da zehatza. Ez dakigu ziur Euskal Herriko parajeak diren. Hori , beharbada, egiten duzu istorioa iradokitzaileago eta orokorrago gelditu dadin...

–Ez naiz eroso sentitzen toki-izenak aipatzen ditudanean. Asko gustatzen zait Modianok Paris nola hartzen duen, esate baterako, eta egin izan ditut Modianok markatutako bide batzuk... Baina nik bestela jokatzen dut, eta batzuk ernegatu egiten dira nire kontu horrekin: «Zergatik ez duk Iruñea idazten?». Ba nahi ez dudalako, zeren Iruñea idatzi ezkero hasi behar duzu Donibane aipatzen, eta Sanduzelai, eta Errotxapea... ez du merezi. Istorioak, oinarri hori gabe ere egin dezake bere bidea.

–Beti esan izan da zure prosa zentzumen guztien ondorio dela. Usaimena, ukimena, hotsak...

–Bai, hala da. Nik gorroto egiten ditut ideiak nobeletan. Eta psikologia ere bai. Nik erretratu psikologiko bat ez nuke horrela egin nahi. Guk zenbat denbora ematen dugu hausnarrean egunean zehar? Kontenplazioaren ondorioz etorriko da ideiaren bat, baina ideia denak ez datoz bat. Bidean dabilenak, esate baterako, zer sentitzen du? Gosea, egarria... kamioia pasa da eta hari begira jarriko da, edo urrutiko basoari begiratuko dio... Bitartean zer dago? Hori! Eta pilaketa horrek ekarriko du gero hausnarketa. Bidaia-liburuekin batzuetan nazkatu egiten naiz, zeren gauza ustez oso interesgarriak kontatu behar dira horrelakoetan; baina geltoki baten eman duzun tartea? Eta aireportu batean eman duzuna? Hori ez da bidaia?

–Itzulpen lanak ere egin izan dituzu, adibidez Modianoren testuenak. Gero lan hori abantaila izaten da literatura egiteko garaian?

–Bai. Nik hitz guztiak neurtzen ditut. Mantso idazten dut, baina seguru. Itzulpenak hau behar du: zegoena idatzi, baina batez ere zegoena sinesgarri eta hurbil egin.

–Zu oso musikazalea zara.

–Bai, nik egunero entzuten dut musika, eta asko. Baina gero liburuetan sekula ez dut musika-aipamenik egin.

–Esadazu musikari kuttun batzuen izenak.

–Bat esango dizut: Neil Young.

Pello Lizarralde, aste honetan Donostiako Parte Zaharrean. :: MICHELENA

«Errepideak konstante bat dira nire obretan. Nire protagonistak ez ditut imajinatzen egongela batean, supazterrean»

«Egunero entzuten dut musika. Baina gero liburuetan sekula ez dut musika-aipamenik egin»